IÑAKI

Enpresa arduradun eta euskara sustatzailea

"Enpresa teknologikoen arloan ez zaio euskarari eman beharko litzaiokeen garrantzia ematen. Potentziala galtzen ari da.

49 URTE, EIBAR

LANA ARRASATEN

IBILBIDE PROFESIONALA

- Unibertsitate ikasketak, masterrak eta doktorego tesiak egindakoa da.
- Ikerketan jarduten du bere lanaren zati batean.
- Kudeaketa lanak ere tokatzen zaizkio, eta ardura postu batean dihardu urtetan.
- Administrazioarekin eta unibertsitateekin harremana dauka eta oso ondo ezagutzen du teknologia arloko sektorea.
- Bere lanaren zati bat ingelesez eta gaztelaniaz egiten du, baina euskaraz egiteko aukerak aprobetxatzen ditu eta aktiboki euskara bultzatzen saiatzen da ahal duen neurrian.

MOTIBAZIOAK

- Gazteak euskaraz lan egiteko prestatuta datoz.

KEZKAK

- Talentua erakartzeko zailtasunak ikusten ditu.
- Ikerlarientzat baldintza egokiak sortu nahi ditu.
- Nazioartean lehiatzen du eta enpresaren emaitza ekonomikoek kezkatzen dute.
- Euskaraz egiten diren ikerketa gutxi horiek euskaraz gizarteratu beharra sumatzen du (Teknopolis, Ekaia eta Elhuyar aldizkariak…).

NARRATIBAK

- Arazo orokorra da. Ikertzaileen eskaera handia dago eta oso profil zehatzak bilatzen dira, eta asko **atzerritik** datoz.
- Baldintza berdinetan, gazte euskaldunarentzat **plus bat** da euskaraz lan egiten duen enpresa batean lan egitea.
- Ezagutza zehatzak enpresan bertan transmititzen dira **(intraformazioa)**; hori **euskaraz** balitz, erabilera ere beste bat litzateke.
- Gazteek ikasketak eta lana euskaraz egiteko aukera dago. Ikerketa zentroetan **ikertzaile euskaldunak** formatuta, enpresetan euskaraz lan egiteko aukera handiagoak sortuko lirateke.
- **Posizionamendu digitalak** eta itzulpen automatikoak lagun dezake euskara zabaltzen.
- Euskara **teknologietan txertatu** behar da, eta orain da aukera paregabea: oinarri sendoa dago (corpusa, tresnak, baliabideak…).
- **Etorkizuneko 4.0** tresnetan, kodeak, sinboloak eta zenbakiak izango dira. Hor hizkuntzak garrantzia gutxiago izango du.
- Euskara **2. mailako hizkuntza** da eta ingelesa baloratzen da lanerako, gero eta gehiago.
- Euskarazko teknologiaren **dibulgazio mediatikoa** baliagarria da formaziorako materiala sortzeko, oinarri sendoa izateko.
- Hainbat enpresak (kooperatibek eta gipuzkoarrek, batez ere) ahalegin berezia egiten dute **euskara sustatzeko**.
- Merkatu lokalean **euskarak lagundu egiten** du enpresa lehiakorragoa izaten.
- Euskarari **funtzio zehatzak** eman behar zaizkio. Gutxienez pertsonen arteko harremanetan egon beharko litzateke.
- Zerbitzua euskaraz jasotzeak **balioa dauka erosle euskaldunentzat**. Maila lokaleko merkatu eta helburuak dituzten enpresek euskararen gaia landu egin behar dute: irudian, marketin estrategietan, harremanetan…
- **Administrazioak eredu** izan behar du, eta administrazioa euskalduntzetik hasi behar da.
- Herriko **kultura ezagutzea** garrantzitsua da merkatuan negoziatzeko.
- Bezeroak harreman luze baten emaitza dira, eta hor aspektu kulturalek benetako pisua dute; eta **kultura eta hizkuntza** eskutik datoz.
- Euskaraz ez egitea **oztopo sozial handia** da, baina ez da oztopo teknikoa.
- Langileen kohesioan eta **enpresarekiko atxikimenduan** irabazten du enpresak euskara erabiliz. Eta Erantzukizun Sozialaren eremuan enpresa arduratsua izango da.